

29/2015 TXOSTENA, ABENDUKOA, FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

I. ESKUMENA

Txosten hau egin da uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren babesean, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 6.1 artikuluan xedatzen duenarekin lotuta, eta apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16.a) artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Funtzio publikoari berariaz edo ondorio gisa eragiten dioten alderdiak baino ez ditu aztertzen, eta, beraz, zuzendaritza honek ez ditu gainerako gaiak kontuan hartuko.

II. XEDEA ETA HELBURUA

Aztertzen ari garen lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legea aldatzea da, egungo premietara eta etorkizunean gizarteak eskatuko dituenetara egokitzeko, herritarren zerbitzuan herritarrengandik hurbilago jardungo duen polizia-eredu batean sakonduz.

Aldaketak egiteko, honako hauek hartu dira aintzat: gerora sortutako estatuko legeak edo lege autonomikoak; indarreko araudia eta araudi hori interpretatzen duten erabaki judizialak aplikatzen metatutako esperientzia; Ertzaintzaren modernizazio-proiektuen testuingurua; eta Eudel - Euskal Udalen Elkartearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenetik eratorritako lantaldeetan azken urte hauetan garatutako lanen emaitza.

Lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Sartzeko baldintzak lege formal batean erregulatzea.
- Aukeraketa-organoen inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezializazio-bermeak nahiz emakumeen eta gizonen arteko oreka areagotzea.
- Ekintza positiboko neurriak hartzea, emakumeak polizia-kidegoetan sar daitezen.
- Barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga kentzea.
- Bigarren jardueraren kasuan bezala, eritasunagatik, istripuagatik edo adinagatik fisikoki edo psikikoki eragindako funtzionarioen osasuna babesteko neurriak indartzea.
- Diziplina-erregimena eguneratzea eta kontrol-mekanismoak indartzea.
 - Kexak tratatzeko mekanismoak, segurtasun publikoaren sistema hobetzeko Bulegoaren bitartez.
 - Ertzaintzaren Kontrol Batzordea sortzea.

- Udaltzainek beren udalerritik kanpo jarduteko aukera ematea, toki-agintariak babesteko; era berean, kidego horien egitura profesionalari buruzko beste alderdi batzuk, eta
- Udal-zaintzaileen edo mugikortasun-agenteen figurak erregulatu eta integratzea.

III. LEGEZKOTASUNA

Txosten hau emateko, indarrean dagoen araudia hartu behar da kontuan, aurkeztutako proiektua araudi horretara egokitzen den aztertzeke; zehazki:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziarena.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.
- 1/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak antolatzekeoa.

IV. EDUKIA

Aztertzen ari garen aurreproiektuan, askotariko helburu espezifikoak planteatu dira:

Poliziaren Europako etika-kodearen edukia araudian txertatzea.

Poliziaren jardunbide egokiaren pizgarri positiboak indartzea, ordainsari-egituran txertatu nahi diren ordainsari-osagarriak aipatuz, hala nola produktibitate-osagarria, karrera profesionalaren osagarria eta aparteko gehigarriak, eta aipatuz, halaber, kondekorazio, sari eta ohorezko sarien sistema zehaztu beharra.

Diziplina-erregimena aldatzea bi modutan; batetik, kanpo-kontrolako batzordea sortuz, eta, bestetik, kexak tratatzeko mekanismoak ziurtatuz, hartara poliziaren eta herritarren arteko ezinbesteko elkarreragina ahalbidetzeko.

Legean sartzeko betekizunen bereizgarriak txertatzea, hala nola: txanda libretik sartzeko gehieneko adinaren eskakizuna kentzea, eta C1 azpitaldearen titulazioa eskatzea sartzeko prozeduretan aurkezteko. Aldi berean, erretiro-kasuei dagokiena funtzionarioen legeria orokorrari lotzeko erabakia hartu da.

Hautaketa-alorrean, berriz, honako aldaketa hauek proposatu dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen 48. artikulua aldatzea, hautaketa-organoen osieran inpartzialtasuna, profesionaltasuna, espezializazioa eta emakume eta gizonen ordezkariak orekatu bermatzeko; Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia izendatzea Ertzaintzaren hautaketa-prozesuetarako hautaketa-organo iraunkor espezializatu gisa; eta eskaerak aurkezteko epe berri bat ireki beharra kentzea, baldin eta oinarrien aldaketek zerikusia badute deitutako lanpostu hutsen kopuruarekin eta akats materialen edo egiteko akatsen zuzenketekin.

Ertzaintzan emakumeek duten presentzia indartzeko neurri gisa, sartzeko unerako eta karrera profesionalerako, emakumeak sustatzeko planak egin dira; ildo horretan, txanda libretik sartzeko hautaketa-prozeduretan komeniko litzateke deitutako plazen gehienez ehuneko 40 eta gutxienez ehuneko 25 emakumeek betetzea, eta hori funtzionarioen ehuneko 33 emakumea izatea lortu arte. Helburu hori lortzeko, emakumezko hautagaiari lehentasuna ematea proposatu da, baldin eta baztertutako gizonezko hautagaiarekiko puntu-aldea ehuneko 15etik beherakoa bada eta gizonezko hautagaiak legezko arrazoirik ez badu neurria ez aplikatzea justifikatzeko. Sustapen-prozesuetarako erabaki da sustatzeko aukera ematea seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzian daudenei edo genero-indarkeriagatiko eszedentzian daudenei, baita amatasun eta aitatasunagatiko baimenak eta haurdunaldiagatiko baja baliatzetik eratorritako zerbitzuak aintzat hartzea ere.

Egitura organikoari dagokionez, eskala eta kategoriak bateratu egin dira, udaltzain funtzionarioak eskala berrietan integratzea aurreikusi da, eta espezialitate-betekizuna duten lanpostuetarako horniduraren erregulazioa zehaztu da. Zehazki, aipatzekoa da superintendentearen figura desagertu dela; agintekatearen postu gorenak postuak hornitzeko sistema arruntaren bitartez hornituko dira; Ertzaintzan espezialitateen erregimena arautu da jakintza espezifikoa dituzten zereginetarako; gradu pertsonalari buruzko erreferentzia kendu da; Ertzaintzaren eta udaltzainen kategoria eta eskalak bateratu dira; eta buruzagitzari dagokion kategoria zehaztu da tokiko herritar kopuruaren edo kidegoko funtzionario kopuruaren arabera, herri bakoitzaren biztanleriari eta ezaugarriei jarraiki eta intendentearen kategoria zer herritan egon daitekeen aintzat hartuta.

Ertzaintzaren polizia judizialaren eginkizunaren antolaketa-egiturari buruzko erregulazioa berriz ere idatzi da. Segurtasun Sailak atxiki ahalko dizkie epaitegi edo tribunal jakin batzuei, behin betiko eta egonkortasunez, ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko zerbitzuak, atalak edo unitate-taldeak. Ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko zerbitzuei atxikitako funtzionarioen erregimena, oro har, lege honetan Ertzaintzarentzat aurreikusten den berbera izango da -112. eta 114. artikulua-.

Barne-sustapenari dagokionez, lehendik zeuden muga jakin batzuk kenduko dira barne-sustapena errazteko; hau da: mailaz igotzeko, aurreko kategorian emandako urteen kopurua murriztuko da eta barne-sustapeneko hiru deialdien muga kenduko da; aldi berean, Ertzaintzaren maila goreneko postuetara (komisarioa eta intendentea) sartzeko aukera barne-prozeduraren bitartez arautuko da. Karrera profesional horizontala arautu da, azterketa-mekanismo bat ezarri garapen profesionaleko graduetan sartzeko eta kompetentzia profesionalak egiaztatuz; garapen-graduaren arabera karrera profesionaleko osagarria jaso daiteke, baita postu jakin batzuetan jarduteko gaitasuna jaso ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legean jada jasota zegoen Akademiaren prestakuntza-planak hezkuntza-sistema orokorraren mailetara egokitze xedea, dagozkion titulazio akademikoekiko baliokidetasunak eskatu ahal izateko eta bateraezintasunen erregimena erregimen orokorrera eta Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoaren 78. artikulua interpretazio judizialetera hurbiltzeko.

Oinarrizko gizarte-babesa eta gizarte-babes osagarria eta lan-arriskuen prebentzioa zaintzea helburu garrantzitsua izan da. Lanean edo lanaren ondorioz sortutako lanbide-gaixotasunak edo laneko istripuak sortutako lesioak edo patologiak direla-eta izaten diren aldi baterako ezintasunen kasuetarako, babes sozial osagarriko mekanismoak izatea hartu da kontuan. Gainera, aurkeztutako

proposamenaren arabera eskubide osagarriak modu zabalagoan arautuko dira zerbitzua ematean edo eginkizunak betetzean izandako istripuaren edo indarkeriaren ondoriozko heriotza-kasuetan, edota eginkizunak betetzean edo zerbitzuak ematean hirugarrenen indarkeriazko ekintzek eragindako lesio iraunkorren kasuetan.

Administrazio-egoerei dagokienez, adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa arautu da, eta bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko betekizunak aldatu dira. Gainera, erregulazioa argitu da behin betiko etetea dakarren behin-behineko etete-kasuetan jasotako ordainsariei eta denborari dagokienez.

Diziplina-erregimenari dagokionez, interes handiko hainbat aldaketa egin dira, hala nola: oso hutsegite larriak sartu dira sexu-jazarpena eta lan-jazarpena behin eta berriz gertatzen diren kasuetarako eta polizia-bideokamerak erabiltzeko erregimenaren arau-hausteetarako; ezarri beharreko zehapenen zerrenda neurritik ekarri da; zehapenaren mailaketa-irizpideak aldatu dira, lanbide-historiala aringarritzat joz, eta berrerorpen-kontzeptua astungarritzat jo da; espedientearen eraginpeko pertsonaren bermeak indartu dira; prozedura iraungitzeko erregimena eta epea arautu da eta hutsegite eta zehapenen preskripzio-epeen erregulazioa berridatzi da; zehapenak bete beharra aintzat hartu da; eta zehapenen betearazpena etetea eta baldintzapeko barkamena zein kasutan ezarri behar diren zehaztu da.

Udaltzaingoari dagokionez, udal-barrutitik kanpo toki-agintariak babesteko eginkizunak arautu dira; bitarteko funtzionarioak izendatu dira Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak prestatutako hautagaien artean; Akademia horrek prestatutako langileekin lan-poltsak sortzea jaso da; udaltzaingoa trukearen figura hartu da aintzat, eta aguazilen figura arautu da udaltzaingorik ez daukaten udalerrietarako, eta mugikortasun-agenteen figura hirigunean zirkulazioa arautzeko, kasu batean eta bestean prestakuntza Polizia eta Larrialdietarako Euskal Agentziaren eskutik jaso dutela ziurtatuta.

Azkenik, Ertzaintzaren Aldizkariari buruzko aipamenak kendu dira, eta haien ordez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzkoak hartuko dira aintzat, gehienez hamasei hilabeteko epean lege hau indarrean hasten denez geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legea eta haren ondorengo aldaketa guztiak testu bakarrean bil ditzan.

1.- Ekinbide - Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoa.

Polizia-jardueraren kontrol-mekanismoei buruzko kapituluan jaso denez, Ekinbide segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritar-ekimenen bulegoa dago indarrean, herritarren kexak izapidetzeko. Polizia-kidegotik aparteko adituek beren gain hartuko dute kexak izapidetzeko ardura.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 23. artikuluan jada figura hori jasota zegoen, azaroaren 14ko 22/2000 Dekretuaren bidez sortu zena, Ekinbide Polizia Zerbitzua hobetzeko ekimenen bulegoa sortzeko eta Ertzaintzaren jardun-eremuan haren antolaketa eta funtzionamendua arautzeko. 15/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeak, haren jardun-eremua berregokitu du.

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari atxikitako langileen lanpostuen zerrendako postuetan diharduten lan-kontratupeko langileek betetzen dituzte hobekuntza-bulegoarekin zerikusia duten eginkizunak, Segurtasun Sailak emandako informazioaren arabera.

- 3217/1 Ekinbide Zerbitzua hobetzeko ekimena duen bulegoa
- 3145/15 Abokatua
- 3244/11 Administraria

2.- Ertzaintzaren Kontrol Batzordea - kide anitzeko organoa

Kanpo-kontrolako batzorde hori sortu da erakunde hibrido iraunkorra izateko asmoarekin, polizia-erakundearekiko erabateko autonomia izango duena eta ospe handiko bost pertsonak osatua, erdia Ertzaintzaren eskala edo kategoriako kideak edo kideak izandakoak A sailkapen-taldean. Gobernu Kontseiluaren dekretu bidez izendatuko dira kideak.

Ikerketak egitean, Ertzaintzaren kanpo-gaietarako zerbitzuen laguntza izan dezake Batzordeak, baita zerbitzuak ematen ari diren karrerako funtzionarioen laguntza ere, azken horiek Batzordeak gainbegiratuta jardungo dutelarik.

Azken aukera hori bideragarria da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren 4/1992 Legearen 72. artikulua ahalbidetzen duelako zerbitzu-batzordeak ematea lanpostuari berariaz esleitu ez zaizkion zeregin bereziak egiteko.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza honek egokitzen jo du artikuluetan zehaztea nola hautatu eta izendatu behar den batzordeburua. Aurreproiektuan baldintza batzuk ezarri dira Batzorde horren kide diren pertsonen inpartzialtasuna bermatzeko, eta berariaz zehaztu da pertsona horiek ez dutela beren lanengatik inolako ordainsaririk jasoko, ezertan galarazi gabe administrazio publikoetako enplegatuek ez badira zerbitzua emateagatik bidezkoak diren kalte-ordainak jaso ahal izatea.

3.- Lanpostuak antolatzea. Espezialitateak

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 75. artikulua xedatzen du karrerako funtzionarioak kidego, eskala, espezialitate eta bestelako sistemen bidez sailkatzen direla, eta sailkapen-elementu horiek konpetentzia, gaitasun eta jakintza komunak biltzen dituztela, hautapen-prozesuen bidez egiaztatua.

Egitura organikoari dagokionez, eskala eta kategoriak bateratu egin dira, eta espezialitate-betekizuna duten lanpostuetarako horniduraren erregulazioa zehaztu da. Gainera, superintendentearen kategoria espresuki desagertu da, eta agintekatearen postu gorenak postuak hornitzeko sistema arruntaren bitartez hornitu dira. Gainera, gradu pertsonalari buruzko erreferentzia kendu da.

a.- Sartzeko titulazioa aldatu du.

105. artikulua berridazteko proposamenean alde handi bat nabari da oinarrizko eskalari dagokionez. Orain arte, agentearen kategoria duen oinarrizko eskala D taldeari atxiki zaio (C 2 gaur egun), eta, beraz, azpitalde horri dagokion titulua eskatu da sartzeko, nahiz eta, sartzeko oinarrizko ikastaroa eta praktikaldia

gainditu ondoren, funtzionario izendatzean, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen C taldean sailkatu *dituzten*. *Sailkatze horrek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu, soilik Ertzaintzaren esparruan, eta ez du izango inolako baliokiderik ezta errekonozimendurik ere arlo akademikoan, irakaskuntzakoan edo heziketakoan*”.

Testua berridatzi ondoren, ikuskapeneko eta oinarrizko eskalak C taldean sailkatu dira, C1 azpitaldean, eta, beraz, sartzeko eskatutako titulazioa C1 azpitalde horri dagokiona da.

b.- Espezialitateak

Aztertzen ari garen Lege Aurreproiektuan, 65 bis artikulua berria erantsi da, eta hartan zehazten denez, espezialitate-betekizuna duten postuak berehala betetzeko aukera izango da espezialitate-ikastaroak gainditzen dituztenekin, baldin eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak eta eskumeneko Administrazioak batera esku hartzen badute ikastaro horien deialdiak egitean.

Horren ondorioz, espezialitatea duten postuak hornitzeko, eskatutako betekizun eta espezialitate guztiak betetzen dituztenek parte har dezakete hornidura-prozedura horietan.

c.- Gradu pertsonala kendu da.

43. artikuluan karrera profesionala garatzen da, eta 43. artikulua aldatzeko proposatu da. Lanpostuen zerrenden kapituluaren barruan sartu da. Proposatutako aldaketari jarraiki, gradu pertsonalari buruzko aipamena desagertu da Legearen artikuluko guztietan (65. artikuluko 2. paragrafoa, 71. artikuluko 3. paragrafoa).

d.- Superintendentearen kategoria kentzea.

Superintendentearen kategoria kendu da hierarkia-egituratik, nola Ertzaintzako langileentzat hala udaltzaingoarentzat, eta figura horri buruzko aipamen guztiak desagertu dira honako artikuluko hauetan: 56, 59, 74, 105, 118 eta Laugarren Xedapen Iragankorra.

1.-Ertzaintzari dagokionez, laugarren xedapen iragankorrean espresuki sei hilabeteko epea eman da Ertzaintzaren lanpostu-zerrenda aldatzeko, eta horrela desagertutako kategoriari erreserbatutako lanpostuak intendentearen kategoriara egokitzeko. Aldaketa hori gauzatu arte, lanpostu horietan dihardutenek superintendentearen kategoria horri esleitutako ordainsariak jasotzen jarraituko dute, une honetan indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Inork ere ez du superintendentearen kategoria. Izan ere, kategoria txikiagoko funtzionarioak betetzen ari dira superintendentearen kategoriari erreserbatutako postuak. Behin aldaketa horiek gauzatu, intendentearen kategoriari dagozkion ordainsariak emango dira.

2.- Udaltzaingoari dagokionez, bosgarren xedapen iragankorrean, esanbidez, udaltzaingoetako funtzionarioak automatikoki goragoko kategorian integratu behar dira.

Udaltzaingoari dagokionez, okupatzaileen egoera ez da arautu laugarren xedapen iragankorrean Ertzaintzarentzat ezarri den bezala. Espedientetik ez da ondorioztatzen intendentearen kategoria duen langilerik ba ote dagoen. Baldin

balego, ez litzateke koherentea izango langileen ordainsariak arautzeko atal bat biltzea.

4.- Hautaketa: deitutako lanpostu hutsen aldaketa eta hautaketa-organoak

Bosgarren artikulua bosgarren atal bat gehitzen dio 4/1992 Legearen 47. artikuluari. Horri jarraiki, hautaketa-prozesu bateko oinarriak aldatzeko deitutako plazak aldatzea soilik badakar, ez da beharrezkoa izango eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea.

Aukera hori jasota zegoen, dagoeneko, uztailearen 19ko Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia aukeratzeko eta prestatzeko araudia onartzen duen 315/1994 Dekretuaren 40.2 artikuluan. Neurritasunez erabili behar da ahalmen hori; hau da, gehitutako plazen kopuruak ez du eragingo hautaketa-prozedura guztiz desberdin bat hartzaileentzat, aukerei eta espektatibei dagokienez. Honako hau saihestu behar da: administrazioak, beharrak gaizki neurtu dituela eta, handitzea neurritz kanpokoak izatea, eta horrek publizitate- eta lehia-printzipioak urratzea ekartzea, Konstituzioko 23.2 eta 103.3 artikuluetan eta uztailearen 17ko 7/1992 Legearen 44. eta 47. artikuluetan adierazitakoa betez. Hori gertatzen bada, derrigorrean ireki beharko da eskabideak aurkezteko beste epe bat, edo geroagoko beste prozedura baterako deialdia. Deitutako plaza kopurua handitzeko ekimena ongi hausnartutako eta haztatutako ehuneko bati jarraiki egingo da. Hautaketa-prozesu baten oinarrietan deitutako plaza kopurua aldatzeko gehieneko ehuneko legean arautu beharko litzatekeela uste da, eskariak aurkezteko beste epe bat ireki beharrik gabe.

Hautaketa-organoei dagokienez, proposatu da 48 artikulua berridaztea honako hauek erantsiz haietan parte hartzeko aukerarik ez duten langile gisa, Enplegu Publikoaren Lege-proiektuarekin bat etorriz: funtzionario-elkarteen edo lanbide-elkargoen ordezkartzean edo sindikatuen kontura diharduten langileak.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten aholkulari adituei dagokienez, erantsi beharra dago, gainera, haien jardunak ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bete behar dituela.

Sartzeko sistemari eta barne-sustapeneko sistemari dagokienez, bi modutako aldaketak jaso dira; batetik, barne-sustapenerako mugak kentzea, eta, bestetik, emakumeak polizia-kidegoan sar daitezen sustatzea. Aldaketa horiek lehenago aipatu dira IV. atalaren hasieran, eta emakume eta gizonen berdintasunerako legearen printzipioak aplikatzen dituzte.

5.- Barne Sustapena eta Polizia Judiziala

Barne-sustapeneko txandan sartzeko bete beharrekoak arautzen dituen 59. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da. Barne-sustapeneko txandan sartzeko behar-beharrezkoa da, betiere, dagokion kategorian sartzeko titulazioa eta gainetako betekizunak betetzea, baita konkurrentziako hautaketa-prozesuetan parte hartzea eta prozesu horiek gainditzea ere.

Eraginkortasun- eta efikazia-printzipioak aplikatuz, epaitegi edo tribunal jakin batzuei ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko unitateetako zerbitzu, atal edo taldeak etengabe eta egonkortasunez atxikitzeke aukera ezarri da.

Ikerketa kriminaleko eta polizia judizialeko zerbitzuei atxikitako funtzionarioen erregimena, oro har, lege honetan Ertzaintzarentzat aurreikusten den berbera izango da.

6. Karrera profesionala

Lege-aurreproiektu honetan gai hori arautzea proposatu da. Horretarako II BIS kapitulua erantsi da, karrera profesionalari buruzkoa, eta haren 73. artikuluan karrera profesional horizontala arautu da, garapen profesionalean aurrera egiteko lanpostua aldatu beharrik gabe. Sistema horren bitartez, azterketa-mekanismo bat ezarri da garapen profesionaleko graduatan sartzeko, konpetentzia profesionalak egiaztatuz; garapen-graduaren arabera karrera profesionaleko osagarria jaso daiteke, eta baita postu jakin batzuetan jarduteko gaitasuna jaso ere.

Enplegu publikoa antolatzeko eta planeatzeko beste tresna bat da jardunaren ebaluazioa. Jardunaren ebaluazioaren helburua da lanbide-jokabidea eta eraginkortasuna edo emaitzen lorpen-maila ebaluatzeko nahiz balioesteko aukera ematea. Positiboa ala negatiboa izan daiteke ebaluazioa, eta haren emaitzak eragin nabaria izango du langilearen karrera profesionalean, barne-sustapenean, prestakuntzan, lanpostuak betetzeko prozesuetan, langileak titular moduan dagokion edo behin-behinean betetzen ari den postuan jarraitzean edo ez jarraitzean, eta dagozkion ordainsari osagarrietan.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, administrazio publiko bakoitzaren legee dagokie ordainsari osagarrien zenbatekoa eta egitura ezartzea zenbait faktore aintzat hartuta, besteak beste, funtzionarioek administrazio-karrerako sistemaren barruan lortutako aurrerapen-maila.

Karrera profesionaleko osagarri bat konfiguratzeko du lege horrek. Horri dagokionez, aipatzekoa da ordainsariak Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legean ezarritakoaren arabera arautuko direla, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren legearen 74. artikulua honela dio, hitzez hitz:

"74. artikulua.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten kidegoetako funtzionarioen egitura eta ordainsarien erregimena euskal administrazio publikoetako funtzionarioentzat aurreikusitako arauetan ezarritakoaren arabera izango da, hurrengo paragrafoetan ezartzen diren berezitasunekin, zeinak Ertzaintzaren kidegoari aplikatzekoak baitira."

Espresuki, 6/1989 Legearen 77. artikulua arautzen duenez, *"lege honetan jarritako lansariengatik bakarrik jaso ditzakete lansariak euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek."*

Garapen profesionaleko osagarria ez da sortu edo arautu euskal funtzio publikoaren legean, baina euskal enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektuak karrera profesional horizontala arautzen du, garapen profesionaleko graduatan aurrera eginez gauzatuko dena, gradu horiek, nolana ere, interesdunaren merezimenduen aldeko ebaluazioa beharko dutelarik.

Erregelamenduaren 20.5. artikuluan honako hau ezartzen da: "lanbide-karrera horizontala, Estatutu honen 24. artikulua c) idatz-zatian jasotako ordainsari

osagarriak eta lehiaketa-prozedura bidez lortutako lanpostua uzteko erabakia aplikatzeko orduan, artikuluan honen 1. eta 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera, jarduna ebaluatzeko bidea emango duten sistema objektiboak onartu behar dira, aldeztuz, kasuan-kasuan."

Une honetan karrera profesional horizontala garatu gabe dago. Alabaina, euskal enplegu publikoari buruzko legearen aurreproiektua izapidetzen ari da, eta horren arabera, Eusko Jaurlaritzari eskumena ematen zaio garapen profesionalari eta jardunaren ebaluazioari buruzko erregelamendu bat egiteko; erregelamendu horretan euskal administrazio publiko guztietan horretarako aplikatu beharreko oinarriko irizpideak bilduko dira, aipatutako lege-aurreproiektuan sortutako Euskadiko Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak horri dagokionez ezarritako irizpideei jarraiki.

Justiziako, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko eta Ertzaintzako irakasleek beren araudi espezifikuari jarraituko diote karrera profesionala garatzeko, euskal enplegu publikoari buruzko lege-aurreproiektuan eta haren garapen-araudian horri dagokionez jasotako irizpideen ordezko aplikazioa ezertan galarazi gabe.

Karrera profesional horizontalaren modalitate desberdinen ezarpena eta garapena eraginkorra izateko, beharrezkoa izango da, ezinbestean, euskal administrazio publiko bakoitzak dagokion arau-garapena egitea; eta karrera profesionalaren efektibitatea, edonola ere, dagozkion administrazioen aurrekontu-ahalmenaren baitan egongo da. Funtzio publikoaren alorreko indarreko legeetan erregulatutako oinarriko legeria errespetatu beharko da, baita haren erregelamenduzko garapena ere.

Hortaz, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak homogeneotasuna ezarri behar du Euskal Administrazio Publikoetan, eta haren Aurreproiektuan zortzigarren xedapen iragankor bat jaso da, aztertzen ari garen aurreproiektuan ere jaso behar dena:

"Xedapen iragankorra.

Ertzaintzako langileei eta Toki Administrazioaren mendeko udaltzainei ezin izango zaie karrera profesionaleko osagarriaren konturako edo aurreratutako ordainsaririk onartu"

Gainera, honako paragrafo hau erantsi behar da: "Karrera profesionalari dagozkion ordainsari-eskubideak ezin izango dira atzeraeraginez onartu."

7.- Bateragarritasunak

Jardueren bateragarritasunari dagokionez, euskal administrazio publikoetako langileentzat aurreikusitako irizpide berberak aplikatzen zaizkie, muga gehiago zehaztuz: batetik, jarduerak ezin dio polizia-kidegoaren irudiari eta ospari kalterik eragin, haren jardunaren oinarriko printzipioen aurka doalako, eta, bestetik, zerbitzu aktiboan jardutea bateraezina da Indar Armatueta erreserbista izatearekin.

8.- Osasuna eta Babesa, eta kondekorazio eta sariak

III. tituluaren V. kapitulua aldatu da, eta, horren arabera, Osasuna eta Babesa hartuko du hizpide, eta ez zerbitzu-jarduna. Osasun-zerbitzu bat ezarri du; zerbitzu horren gaitasunak eta antolamendua erregelamendu bidez ezarriko dira, eta lankidetzakontratuak edo hitzarmenak ezarri ahalko dira mediku profesionalekin edo erakunde sanitario publiko edo pribatuekin. Administrazio-organo batek bakarrik saina ditzake lankidetzakontratuak edo -hitzarmenak, eta, beraz, osasun-zerbitzuak ez du lankidetzakontratu edo -hitzarmenak egiteko eskumenik izango.

Aurreproiektuan pertsonak ikuskatzeko zerbitzu bat proposatu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako langileek "osasuna nahitaez zaindu beharra".

79.3 artikuluan arautu da senide jakin batzuek zenbateko jakin bat ordainketa bakarrean jasotzeko eskubidea dutela, zerbitzua ematean heriotza gertatzen denean, eta arautu du, halaber, aldi behingo prestazio ekonomiko bat nahitaezko erretiroaren kasuan, baldin eta paragrafo horretan araututako baldintzen ondorio bada.

V BIS kapitulu berri bat erantsi da kondekorazio eta sariak arautzeko, baina erregelamenduzko garapen batera mugatu da, besterik gabe. Polizia-merezimenduaren domina ematearekin batera ondorio ekonomikoak sortzeko aukera ere izango da, erregelamenduak hori ebazten duen kasuetan.

Aurreproiektuaren proposamenaren zati handienak arautzen du, maila handiagoko arau batean, zerbitzu-egintzaren deklarazioa eta Ertzaintzaren ohorezko kondekorazio eta sariak arautzen dituen urriaren 16ko 201/2012 Dekretuan bildutako irizpideak. Dekretu hori aldatu egingo da proposatutako arauaren aurka doan orotan.

9.- Adinaren arabera modulaturako zerbitzua eta Bigarren jardura

a) Adinaren arabera modulaturako zerbitzua

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 indarreko legearen arabera, honela sar daiteke bigarren jarduerako administrazio-egoeran:

- Adin jakin bat badute; edonola ere, Legebiltzarrak zehaztu behar du adin hori lege baten bidez.
- Kategoriari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko behar diren gaitasun fisikoen edo psikikoen gabezia nabarmena eta, dirudenez, iraunkorra, badute.

Aztertzen ari garen aurreproiektuan bigarren jarduerako administrazio-egoeraren deklarazioa arautzen da bigarren kasurako bakarrik, eta proposatzen da, zerbitzu aktiboko administrazio-egoeraren barruan, haren tipologia bat sortzea, hain zuzen ere adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa; aurreproiektuan aurreikusitako adina eta gainerako betekizunak betetzean izango da zerbitzu horretan sartzeko aukera.

Indarrean den araudiarekiko aldea honako hau da:

- Bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko kasua kendu da, eta beste administrazio-egoera mota bat proposatu da: adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa.
- Bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzea ofizios deklaratu da. Proposamen berriaren arabera, adinaren arabera modulaturako zerbitzura hala nahi duenak eskatutakoan igaroko da.
- Gaur egun indarrean den Poliziaren 4/1992 legearen arabera, Segurtasunaren alorrean eskumena duen sailak mugatu egin dezake adina dela-eta bigarren jarduerako egoerara igaro daitezkeen gehieneko funtzionarioen kopurua. Aurkeztutako proposamenean aukera hori ez da jaso.
- Aztertzen ari garen aurreproiektuan, eskaera baldintzatu da 60 urte edo, hala badagokio, 59 urte betetzean erretiro aurreratua borondatez eskatzeko konpromisoarekin.
- Aurreproiektuan arautu da pertsona bat aldi baterako destinorik gabe egoteko aukera, eta hori indarrean den araudian ere jasota dago, jaso beharreko ordainsariak aldatzen badira ere. Indarreko legean jasotzen dira, batetik, kategoriari dagozkionak, eta, bestetik, onartuta dauzkan pertsonalak, hirurtekoak barne. Proposamen berriaren arabera, ordainsariak handiagoak izango liriteke, azken lanpostuaren ordainsariak jasoko lituzkeelako, osagarri espezifikoen osagarri berezia izan ezik.

Une honetan, adina dela-eta zerbitzu aktiboaren jarduna modulatzeko erregulazioa urriaren 9ko 194/2012 Dekretuan dago ezarrita, eta dekretu horrek aldatzen du 2011., 2012. eta 2013. urteetarako Ertzaintzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzeko Dekretua, "modulazio" hori honela jasota:

"Adinaren edo kalte funtzionalen arrazoiengatik Ertzaintzako langileak babestea bermatzeko, honako neurri hauek onartu dira:

- Urteko lanaldia arian-arian murriztea, pertsonaren adinaren arabera.
- Gaueko ordutegiko lan-exentzioa aplikatzea. Nolanahi ere, txanda horretan lan egiteko exentzioa baliatzeko aukera izaki txanda horretan zerbitzuak ematen jarraitzea hautatzen duten langileek produktibitate-osagarriaren zenbatekoaren igoera jasoko dute 2011., 2012, eta 2013, urteetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 76.2 artikuluan aurreikusitako gaueko txandako zerbitzuak emateagatik."

Azttertzen ari garen aurreproiektuan proposatzen diren neurriak araututa daude jada lan-baldintzen Akordioan, zehazki 194/2012 Dekretuan. Adinarengatik zerbitzu aktiboan jarduteko modulazioa aplikatzeko proposatzen diren neurri zehatzak lan-baldintzen eta negozioazio kolektiboaren alorreko neurriak dira. Zerbitzu aktiborako espezifikotasun jakin batzuk jasotzen dira alor horretan, eta eraginpeko administrazio-egoera ez da aldatu, zerbitzu aktiboa izateari eusten diolako.

Indarreko erregulazioa guztiz bat dator arau-hierarkiaren printzipioarekin: batetik, zerbitzu aktiboaren administrazio-egoera, funtzionarioak bere lanpostuak jarduteari dagokiona, arautu egiten da, eta, bestetik, zerbitzu-ematea "modulatzen" da Lan Baldintzen Akordioaren bitartez, akordio hori dekretu bidez onartuta. Sailak ez du argudio juridiko bat ere ekarri arau-maila igotzeko, hau da, lan-baldintzen erregulazio hori lege-mailara igotzeko.

Administrazio-egoeraren modulazioari jarraiki, lan-baldintzak hobetzeko hainbat neurri proposatu dira, eta langile guztiek neurri horiek balia ditzakete 56 urte

betetzean. Langilearen ahalmen fisiko edo psikikoen murrizketaz aparteko eskubide baten antzera jaso daiteke.

Nolanahi ere, beste zerbait erantsi behar da egoera honetarako proposatutako erregulazio zehatzerako: bigarren paragrafoan jaso bada ere aitorten horrek polizia-zerbitzua ematen jarraitzeko bermea baino ez duela ekarriko, proposamen hori ez zaigu nahikoa iruditzen. Eta hori hala da, batetik, 4/1992 Legearen 86. artikuluan jasotako aurreikuspena desagertu delako. Horren arabera, langileak eskuragarri izateko aukeren arabera eta Kidegoaren premia funtzional eta organikoen arabera eskubide hori urtean jaso dezaketen pertsonen kopurua mugatu beharra zegoen.

Eta, bestetik, 3 d) puntuak aurreikusten du pertsona aldi baterako destinorik gabe egon litekeela destinorik esleitu edo lanpostua egokitu arte; hau da, lanpostuari dagozkion ordainsariak jaso ahal izango ditu osagarri espezifikoen osagarri berezia izan ezik, eta ez zaio zerbitzuak benetan ematea eskatuko, hau da, zerbitzu aktiboan jarraituko du baina "Administrazioaren esku" (indarreko araudian bakar-bakarrik aurreikusi da "Segurtasun-sailburuordearen esku").

4/1992 Legearen 88.3 artikulua arabera, bigarren jardueran dauden bitartean, funtzionarioek beren kategoriari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasotzen dituzte, baita onartu zaizkien ordainsari pertsonalak ere, hirurtekoen kontzeptuan dagozkionak barne, egoera horretan hobera egiten jarraituko dutenak. Ordainsari osagarriek dagokienez, betetzen duten lanpostuari dagozkionak jasoko dituzte, arauz ezarritakoak, eta, baldin zerbitzu-arrazoiengatik ohizko polizia zereginak burutu beharko balituzte, zeregin horiek dagozkion lanpostuarenak jasoko lituzkete, egiteko horietan emandako denboraren heinean.

Aztertzen ari garen aurreproiektuan, bigarren jarduerako administrazio-egoeran edo adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran dauden funtzionarioek, aldi baterako destinorik gabe badaude, kategoriaren oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, lehendik onartuta dauzkan ordainsari pertsonalak gehi jardun duen azken lanpostuari dagozkion ordainsariak, osagarri espezifikoen osagarri berezia izan ezik.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Lege-aurreproiektuan, destino-espektatibaren administrazio-egoeran dauden langileek oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, baita karrera profesionaleko osagarria edo maila pertsonal kontsolidatua ere, eta, horrez gain, egoera horretara igaro arte ziharduten lanpostuari dagozkion osagarriaren ehuneko berrogeita hamarra - 151. artikulua-.

Nahitaezko eszedentziaren kasuan aurreikusten da administrazio-egoera horrengatik honako ordainsari hauek jaso behar direla: oinarrizko ordainsariak eta onartutako maila profesionalaren berrogeita hamarra, edo, halakorik ezean, maila pertsonal kontsolidatuaren berrogeita hamarra -153. artikulua-.

Proposamenaren arabera ordaindu nahi diren ordainsariak handiagoak dira funtzio publikoaren erregimen orokorrean nahitaezko eszedentzia-egoerari esleitu zaizkien ordainsariak baino, eta azken egoera horretan ere ez da lanpostu baten benetako jarduna gertatzen.

Ertzaintzako langileen eskaerari jarraiki, polizia-funtzioaren jardunaren modulazioari loturik lege-mailarekin proposatutako aldaketa proposatu da, egoera horretan sar zitezkeen agenteen kopuru-mugarik gabe, polizia-funtzioan jardun gabeko destino-espektatibaren egoera batean sartu ahal izateko aurreikuspenarekin, eta erregulazio horrek unitate bakoitzean egunero zerbitzuak

emateko egitura osatzeko ekar litzakeen ondorioak aurreikusi gabe, indarreko giza baliabideen kudeaketa-prozeduren arabera. Zuzendaritza honek uste du aldaketa horri azterketa edo proiektio ekonomiko bat falta zaiola, erregulazio berri horren ondorioz I. kapituluan gastua igotzeko aukerei dagokienez. Gaur egun indarrean dauden aurrekontu-egonkortasuneko printzipioek eskatzen dute edozein arau-aldaketarekin batera, eta areago lege-mailakoa baldin bada, aldaketa horren aplikazioak ekar litzakeen ondorio ekonomikoei buruzko azterketa bat aurkeztea, bereziki kontuan hartzen badugu litekeena dela datozen urteetan kolektiboaren batez besteko adinaren igoeraren ondorioz aurreikuspen horiek oro har aplikatu behar izatea.

Aurreproiektuan jasotako beste aldaketa bat honako honetan datza: Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren 4/1992 Legearen arabera, bigarren jarduerako egoeran dauden funtzionarioak Herrizaingo Sailaren eta dagokion toki-erakundearen eskumenekoa den organoaren esku geratuko dira, eta ohiko polizia-funtzioak garatu beharko dituzte zerbitzu-arrazoiak direla-eta beharrezkoa denean eta arrazoi horiek indarrean egon bitartean; aztertzen ari garen aurreproiektuan, aldiz, honako hau proposatzen da adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboko kasuetarako:

- Salbuespenez ezinezkoa baldin bada lanpostu edo plaza bati esleitzea, aldi baterako destinorik gabe egoteko aukera izango du administrazioaren esku, destinoa esleitu arte edo lanpostua egokitu arte.

Proposamen berriaren arabera, eskuragarritasuna ez da ohiko polizia-funtzioak garatzera mugatzen, eta eskuragarritasun hori ez da Segurtasun Sailean edo dagokion toki-erakundearen eskumeneko organoan zehazten; aitzitik, Administrazioaren eskura egongo da langilea, eta, horrela, teoriarik behintzat, polizialez bestelako funtzioak bete ahal izango ditu, eta segurtasunaz bestelako alorrean eskumenekoak diren sailetan. Proposamen hori ez zaigu bidezkoa irudituko.

Aurkeztutako proposamenak Administrazio Orokorren lanpostuen hornidura arautzen du. Aztertzen ari garen aurreproiektuan jasota ez dagoen berme bat erantsi du indarreko Euskal Funtzio Publikoaren Legeak. Izan ere, Administrazioaren beste sektore batzuek (irakasleak, osasun-langileak, segurtasun-langileak eta abar) soilik izango dute Administrazio Orokorreko lanpostuak betetzeko aukera, eta bakar-bakarrik baldin eta Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendek hori aurreikusten badute. Horren ondorioz, berme osagarrikerik erantsi gabe, ezinezkoa da sektore-araudi batek ezartzea Ertzaintzako eta udaltzaingoetako langileek betetzea Administrazio Orokorrean, Autonomia Erkidegoko Administrazioetan edo gainerako euskal administrazio publikoetan langileentzat erreserbatutako lanpostuak, polizia-funtzionarioen jardunaz apartekoak.

Hortaz, funtsezko ondorio gisa esan dezakegu adinarenatik zerbitzu aktiboaren modulazioa erregulatzea ezin daitekeela administrazio-egoera soiltzat hartu, ezta zerbitzu-aktiboko administrazio egoeratzat ere, eta, beraz, administrazio-egoeren erregimenaren sailkapenaren tipologia berritzaletzat jotzea ez da bidezkoa gure iritziz. Ondorioztatu dugu, halaber, aztertutako gaia lan-baldintzen eta negoziazio kolektiboaren alorreko gaia dela, eta ez lege-mailako arau baten bitartez arautu beharreko gaia.

b) Bigarren jarduerako administrazio-egoera

Aزتtertzen ari garen aurreproiektuaren 86. artikuluan, bigarren jardueran dauden administrazio-egoera arautzen da, beren zereginak egiteko beharrezko ahalmen fisiko eta psikikoen gutxitze agerikoa dutenen egoera; ageriko gutxitze

horrek, polizia-lanbidearen oinarrizko egitekoak eraginkortasunez burutzea galarazi gabe, bere kategoriako berezko zereginak osorik gauzatzeko ahalmenaren urritze iraunkorra ekarri beharko du berekin. Testuan honako hauek nabarmendu dira:

- Polizia-lanbidearen funtsezko zereginak zer diren zehazteko atal bat txertatu izana.
- Adinaren arabera modulaturako zerbitzu aktiboa eskatzeko edo bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeko eskatzeko behar-beharrezkoa da hirurogei urte, edo, bidezko bada, berrogeita hemeretzi urte betetzean, borondatezko erretiro-eskaera aurreratua eskatzeko konpromisoa hartzea.
- Beste aldaketa bat honetan datza: indarreko araudian, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren 4/1992 Legearen arabera, bigarren jarduerako egoeran dauden funtzionarioak Herrizaingo Sailaren eta dagokion toki-erakundearen eskumenekoa den organoaren esku geratuko dira, eta ohiko polizia-funtzioak garatu beharko dituzte zerbitzu-arrazoia direla-eta beharrezkoa denean eta arrazoi horiek indarrean egon bitartean. Gainera, lanpostuen zerrendetan ezarritakoaren arabera bigarren jarduerako egoeran dauden langileek bete ditzaketen lanpostuak betetzeko aukera izango dute.

Alabaina, aztertzen ari garen aurreproiektuaren 86.5 artikuluan arabera, bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzen diren funtzionarioek uzten badute atxikita dauden lanpostua, ez bada bigarren jarduerako egoeran dagoen langileek egiteko modukoa, aldi baterako atxikipenez esleituko zaizkie haiek egiteko moduko zerbitzuak ematen dauden unitateko lanpostuak. Baldin eta unitatean ez balego lanpostu hutsik, Administrazioak ezartzen duen lantokira atxikiko da funtzionarioa, lanpostu hutsik badago, interesdunak proposatutako hiru lanposturen artetik.

Polizia-kidegoko langileek bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeari buruzko zenbait gai garatzen dituen urtarrilaren 27ko 7/1998 Dekretuan dute arautua (urriaren 16ko 20/2012 Dekretuak aldatu du), eta eranskin batean, bigarren jarduera arautzeko ezintasun medikoen koadroa biltzen da.

Bigarren jarduerak ez du esan nahi lanpostua egokitu behar denik; izan ere, lehendik dauden beste postu batzuk betetzea adierazten du, betiere eginkizun propioak eta zehaztuak dituztela eta bigarren jardueraren administrazio-egoeran dauden langileek betetzeko modukoak izanik. Alabaina, 86. artikuluan 5. atalean aipatu diren zenbait gorabehera direla medio lanpostu librerik ez badago, pertsona hori betetzen ari zen postuaren eginkizunak haren ahalmen berrietara egokituko dira, Ebaluazio Epaitegiaren irizpenarekin bat etorritik. Nolanahi ere, azken aurreikuspen hori osatu behar da. Izan ere, ezinbestekoa da bete beharreko lanpostua dagokion lanpostuen zerrendan sailkatu izana Segurtasun Kidego eta Indarretako funtzionarioek betetzeko moduko lanpostu gisa.

Amaitzeko esango dugu 86. artikulua, oraindik ere, bigarren jarduerako administrazio-egoera horretan dauden langileek bete beharreko ordainsariak ezartzen jarraitzen duela.

10.- Hainbat udalerritan diharduten zerbitzu aktiboko udaltzainen artean destinoak trukitzea

Funtzio publikoaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du (EAE Eren 10.4 artikulua) "Euskadiko eta haren Toki Administrazioen funtzionarioen estatutuan, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe", azken xedapen horrek Estatuari gorde baitio, besteak beste, Herri Administrazioetako funtzionarioen estatutu-erregimenaren oinarriak ezartzea.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 78. artikulua Estatutu hori garatzen duten funtzio publikoko legeei eskumenak ematen dizkie hornidura-prozedurak ezartzeko, lanpostu-trukeak eragindako mugikortasunagatik, osasun-arrazoiengatik mugikortasunagatik, zerbitzu aktiboan berriz sartzeko, lanpostuei uzteko eta lanpostuak kentzeko.

Truke-kasua arautu beharra dago Estatutu hori garatzen duten funtzio publikoaren legeetan. Euskal enplegu publikoaren lege-aurreproiektuaren VIII. tituluko VI. kapituluaren espresuki aurreikusitako enplegatu publikoaren arteko mugikortasuna: genero-indarkeriagatik mugikortasuna; indarkeria terroristagatik mugikortasuna; osasun-arrazoiengatik mugikortasuna; nahitaezko lekualdatzerako diziplina-zehapenagatik mugikortasuna; eta Euskal Administrazio Publikoaren arteko mugikortasuna.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen den urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretua funtzionarioei aplikatzen zaie, eta, bidezko bada, besteak beste autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zerbitzuan diharduten lan-kontratadun langileei (2.1. artikulua): 3.1 artikuluan honela dio, hitzez hitz: "toki-erakundeetako funtzionarioek estatuan aplikatzekoa den legeria bete behar dute, Estatutu hau adibidez, baita autonomia-erkidegoko legeria ere, toki-autonomia errespetatuz".

Aztertzen ari garen aurreproiektuan hogeita batgarren xedapen gehigarria eranstea proposatu da, Alkatetzetako titularrei trukeak baimentzeko eskumena emateko. Trukeak baimentzeko bete beharrekoak bildu dira xedapen horretan. Administrazioak berdintasun-printzipioak errespetatu eta bermatu behar dituzte, aplikatuko den prozedurak publikitate- eta konkurrentzia-printzipioak bermatu beharko ditu.

11.- Aguazilak eta mugikortasun-agenteak

1.- Aguazilak

"117. artikulua:

1. Udaltzaingorik ez duten udaletan, bost aguazil-plaza sortu ahal izango dira, gehienez, lege honen 27.1 artikulua a), b), d), f) eta i) paragrafoetan ezarritako zereginak egiteko.

5. Aguazil-lanpostuak C-2 taldeko edo baliokideko karrerako funtzionarioek beteko dituzte, eta toki-administrazioen funtzionarioei aplikatu beharreko estatutua aplikatuko zaie, artikulua honetan ezarritakoaren kalterik gabe."

"Zazpigarren xedapen iragankorra.- Aguazilak.

1. Udaltzaingorik ez dagoen lekuetan, aguazilak, zaintzaileak edo antzeko funtzioak dituzten funtzionarioak aguazilak deituko dira, edozein izendapen dutela ere.

2. Lege hau indarrean sartzean lege honen arabera aguazil gisa eraturako postuak betetzen dituzten lan-kontratudun langile finkoek postu horietan jarraitu ahal izango dute. Halaber, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez deitutako barne sustapeneko hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izango dute, aguazil izateko lehia askeko hautaketa-prozesuekin batera ala ez, betiere titulazioaren baldintza eta gainerakoak betetzen badituzte; ondorio horietarako, meritu gisa baloratuko dira lan-kontratudun langile finko gisa emandako zerbitzuak eta izaera hori eskuratzeko gainditutako hautaketa-probak."

"Zortzigarren xedapen iragankorra.- Aguazilak udaltzaingoan sartzea.

Udaltzaingoa sortzen denean udalean zerbitzuak ematen ari ziren aguazilak Udaltzaingoan sartuko dira, behin lehiaketa mugatua gaindituta, adinaren eta altueraren baldintzetatik salbuetsita, eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak ezartzen duen ikastaroa gaindituta".

a.- Udalean Udaltzaingorik ez dagoenean.

Hasiera batean, bi prozesu aztertzen ari gara. Lehenik eta behin, aguazilei esleitutako funtzioak betetzen badituzte ere zenbait izendapen eduki ditzaketen guztien izendapenak bateratzea, eta, jarraian, haiek karrerako funtzionarioei esleitzea.

Lehendik dauden postuen izena aldatzeak eta udal-zaintzaile izena jartzeak, finean, postu horiek C-2 taldeko karrerako funtzionarioentzat gordetako postu bihurtzea dakar, 4/1992 Legearen 27.1 artikuluko a), b), d), f) eta i) paragrafoetan adierazitako eginkizunak betetzeko:

- a) Udaletako agintariak eta eraikin eta instalazioak zaintzea.
- b) Hirigunean trafikoa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoari jarraiki.
- d) Polizia administratiboko zereginak, udaleko ordenantzei, bandoei eta gainerako xedapen eta egintzei dagokienez, bere eskumen-eremuaren baitan, eta ingurumenaren eta inguruaren babesaren arloan indarreko araudia betetzen dela begiratzea, udal-eskumenen baitan.
- f) Istripu, hondamen eta zorigaitz publikoetan laguntza ematea, legean ezarritakoaren arabera eta babes zibileko planekin bat etorriz.
- i) Gatazka pribatuak konpontzeko esku hartzea, baldin eta eskatzen bazaie.

Eztabaidagaia da haiei esleitutako eginkizunak karrerako funtzionarioentzat gordetako postuen berezkoak diren ala ez. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legeak bigarren xedapen gehigarrian mugatzen du tokiko udalbatzetan funtzio publiko horiek zein izango diren:

Funtzio publikoak dira, eta, beraz, era eskusiboan funtzionarioek bakarrik bete beharrekoak, agintea erabiltzea, fede publikoa ematea eta aginduzko lege-aholkularitza ematea dakartzatenak, finantza- eta ekonomia-kudeaketa eta aurrekontuen kudeaketa kontrolatzea eta barrutik ikuskatzea dakartenak eta kontabilitatekoak eta diruzaintzakoak.

Transkribatutako arauak lan-kontratudun langileak eginkizun jakin batzuk betetzetik kanpo uzten ditu, berariaz. Proposatutako testuan hori argitu beharko litzateke, artikuluen baitan paragrafo edo amaierako ohar bat gehituz, irakurleari aipatu xedapenaren berri emateko.

Litekeena da lan-kontratudun langileak funtzio horiek betetzen aritzea. Lan-kontratuko langile finkoek postu horietan jarraitzeko aukera izango dute, eta barne-sustapeneko hautaketa-prozesuetan parte hartzeko aukera izango dute, zazpigarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez.

Udalbatzak duen eskumenetako bat da plantillak eta lanpostu-zerrendak onartzea eta aldatzea, eta funtzionarioen eskalak, azpieskalak eta mailak eta haien sailkapena ezartzea -781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideko Xedapen Legalen Testu Bategina onartzekoa-; azpieskalak, mailak eta kategoriak, Estatuko oinarrizko legediaren arabera, legedi horrek xedatzen dituen multzoetan sailkatuko dira, sartzeko exijitzen den titulazioaren arabera.

b.- Udalean Udaltzaingoa sortzen denean.

Aguazilaren figura Udaltzaingorik ez duten udaletan sortzen da. Ondoren udal horretan Udaltzaingoa sortzen bada, aguazilarekin zer egin erabaki behar da. Aguazila desagertu beharko litzateke. Zortzigarren xedapen iragankorrak integrazioa aipatzen du, baina integrazioa karrerako funtzionario aguazilei bakarrik aplikatu dakieke. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 75.1 artikulua arabera, funtzionarioak kidego, eskala edo espezialitateetan sailkatzen dira hautaketa-prozesu baten bitartez egiaztatutako konpetentzien arabera, eta beraz, karrerako funtzionario aguazilak agente-kidegoan integratzen dira, betiere betekizunak betetzen badituzte, titulazioa eta ikastaro murriztua gainditzea barne. Ikastaroa gainditzen badu, aguazil gisa jarraituko du desagertu beharreko kategorian.

Udal horretan udaltzaingoa sortzen denean lan-kontratuko aguazil finkoak bere funtzioak betetzen jarraituko du desagertu beharreko postuan.

Hautaketa-prozesura borondatez joaten ez diren langileak edo prozesua gainditzen ez dutenak betetzen ari ziren lanpostuetan geratuko dira, lanbidean aurrera egiteko dauzkaten aukerei kalterik egin gabe."

Aholku Batzorde Juridikoaren 213/2011 irizpena:

«83. Lanpostuak eskala berrira moldatzeko prozesuaren aurrean, araugileak aukera ematen die langile horiei Administrazioarekin lotzen dituen titulu juridikoa aldatzeko, lan-kontratuduna izatetik funtzionarioa izatera.

84. EPOEko bigarren xedapen iragankorrak aipatzen ditu funtzionarioen eginkizunetan diharduten edo horiek gauzatzera igarotzen den lan-kontratudun langile finkoak.

85. Lan-kontratudun izatetik funtzionaria izatera igartzeko egin beharreko titulu juridikoaren berritze-prozesua lan-kontratudun langile finkoetara

murriztutako hautaketa-prozesua da, barne-sustapenarekin lotua, eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez deitu behar dena. Halakoetan merezimendutzat baloratuko dira lan-kontratudun langile finko gisa benetan egindako zerbitzuak eta bere garaian egoera horretara iristeko gaitutako hautaprobak, betiere beharrezko titulazioa baldin badaukate eta eskatzen zaizkien gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte. Gainera, salbuespentzat eta ezohikotzat jo behar da, Auzitegi Konstituzionalaren ekainaren 11ko 99/1987 epaiaren arabera, ezin baita prozesua errepikatu lanpostu berberen gainean. Gainera, beti errespetatu behar da prozesuan parte hartzen ez duten langileen laneko egonkortasuna.

86. Laburbilduz, aztertzen ari garen xedapenak EPOEn ezarritako baldintzak betetzen ditu. Hala eta guztiz ere, EPOEko bigarren xedapen iragankorrak denborazko muga ezartzen du titulu juridikoa berritzeko, EPOE indarrean jartzen den egunean funtzionario-eginkizunetan diharduten pertsonak edo egun hori baino lehenago deitutako hautaketa- edo sustapen-probei esker eginkizun horiek beteko dituzten lan-kontratuko langile finkoek soilik berritu ahalko baitituzte.

87. Hala eta guztiz, aipatutako aukerak legezko zalantzarik sortzen ez badu ere, denborazko mugak -EPOE indarrean jartzeko eguna aintzat hartzen duenak- aurreproiektuarekin izan lezakeen desadostasuna erlatibizatu behar da, bi arauen izatezko kasua osatzen duen lanpostuen sailkapena EPOEtik eratoritzen baita.

88. Hain zuzen ere, EPOEko 9.2 artikulua ezartzen du zer eginkizun-mota bete behar dituzten beti funtzionarioek, eta Administrazio bakoitzeko legeetara jotzeko agintzen du horiek garatzeko baldintzei dagokionez. Horrela, interpretazio koherente bat eginez gero, diseinatutako sistemarekin bat datorrena, ondorioztatuko genuke EPOEk egiten duen arau-aldaketa nahikoa dela Administrazioaren irizpide-aldaketa justifikatzeko eta, horrela, aintzat hartu beharreko data lanpostu horiek funtzionarioen lanpostutzat jotzen dituen legea indarrean sartu zenekoa dela."

Proposamen horiek kategoria aldatzea dakarte berekin, eta beraz ondorio ekonomikoak izango dituzte.

Batetik, aguazilak udaltzaingoan integratzen ditu. eta, bestetik, funtzionario aguazilek C2 kategoria dute, eta ez C1 titulazio baliokiderik; beraz, toki-administrazioaren funtzionario-estatutua aplikatzen zaie, eta ezin dezakete armarik eraman.

Arma erabiltzen ikasi beharko du, eta beraz, "lehenik eta behin prestakuntza-ikastaro bat egin beharko du Polizia Akademian" esaten dugunean esan nahi dugu ez dakizkien guztiak ikasi beharko dituela udaltzain baten eginkizunak bete ahal izateko eta udaltzaingoan benetan integratu ahal izateko.

Zortzigarren xedapen iragankorra idazterakoan adierazi behar da integrazio hori karrerako funtzionario aguazilei soilik aplikatuko zaiela, eta ez lan-kontratudun aguazilei. Eraginpeko langileak zer baldintzatan geratzen diren zehaztu behar da.

Eskala horretan sartzeak ezingo du ekarri gastu publikoa handitzerik, ezta jasotzen duten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarriko ordainsarien hazkundera beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute.

2.- Mugikortasuneko agenteak

"121. artikulua:

1. Biztanle ugari duten udalerrietan, Udalbatzak bere funtzionario batzuk izendatu ahalko ditu hirigunean trafikoa antolatzeko, seinalatzeko eta arautzeko funtzioak eskusiboki betetzeko, trafiko eta bide-segurtasuneko arauetan ezarritakoaren arabera: mugikortasun-agente deituko dira. Hori egiteak ez du ekarriko agente kopurua edo langile-kostuak handitzea.

3. Plaza horiek eskuratzeko, C-2 sailkapen-taldeari edo baliokideari dagokion titulazioa eduki beharko da, eta aldez aurretik ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu beharko dute, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademian edo hark izendatutako beste ordezeko udal-ikastegietan, eta beste gainerako kontuetarako tokiko funtzionarioentzat aurreikusitako arau erkidearen arabera jardun beharko dute.”

Mugikortasun-agentearen kategoria sortu du. Lehendik dauden agenteekin. Borondatezkoa izango da.

Lege honetan aurreikusitakoa aplikatzeak ez du ekarriko gastu publiko gehitzea ezta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen oinarritzko eskala osatzen dutenek jasotzen dituzten ordainsari osoen urteko kopurua aldatzea ere, beraz aipatu aldaketak dakarren oinarritzko ordainsarien gehikuntza bestelako oinarritzko osagarrietan irentsiko da.”

Konstituzio Auzitegiaren 2006ko otsailaren 1eko epaiak dioenez, “funtzio publikoan sartzeko titulu akademikoa eskatzean datzan sistema orokorra bi printzipio gidariren ondorio da; bata, tituluak irizpide taxonomiko gisa hartzea funtzionarioen kidegoak, eskalak, mailak eta kategoriak argitzeko (30/1984 Legearen 25. artikulua), eta bestea, langileen barne-sustapena titulu horiek errespetatuz egin dadin exijitzea (22.1 artikulua) (2388/1993 KAE).

“Printzipio horiek ez ezagutzeak kalte egiten dio gaitasunari, lanpostu jakin batean jarduteko eskakizun absolutu gisara, eta merezimendua ukatzen du izendapenera jotzeko alderaketa- eta lehentasun-osagai erlatibo gisa.”

12. Udaltzaingoko funtzionarioak eskala gorenean sartzea.

Egungo egitura

Eskala gorena, Superintendentea eta intendentea - A1.
Eskala exekutiboa – Komisarioa eta komisariordea – A2
Ikuskaritza. Ofiziala eta ofizialordea – C1
Oinarritzkoa. Lehenengo mailako agentea eta agentea
Titulazio baliokidean sartzeko oinarritzko eskala C2-

Behin izendatuta C1 kidegoan sailkatuko dira, lehenengo mailako agentearen kategoriarekin oinarritzko eskalan, ondorio ekonomiko eta administratiboak Ertzaintzaren eremura mugatuko direlarik.

Proposatutako egitura

Eskala gorena, Intendentea – A1
Eskala exekutiboa – Komisarioa eta komisariordea – A2
Ikuskaritza. Ofiziala eta ofizialordea – C1
Oinarritzkoa. Lehenengo mailako agentea eta agentea.

Oinarrizko eskalan sartzeko, C! titulazioaren titulazio baliokidea aurkeztu beharko da.

Bosgarren Xedapen Iragankorrak toki-funtzionarioen integrazioa arautzen du, eta honako hau ezartzen du: intendentearen kategoria duten langileak eskala gorenean integratuko dira automatikoki, eta komisario eta komisariordearen kategoria dutenak, berriz, eskala exekutiboan, hurrenez hurren.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legea indarrean sartu aurretik A mailako lanpostua zuten eta horren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera lortutako plaza baino maila baxuagoko kategorietan sartu ziren Udaltzaingoko kidegoetako funtzionarioak, eskala gorenean sartuko dira.

Eskala horretan sartzek ezin du ekarri gastu publikoa handitzerik, ezta jasotzen duten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarrizko ordainsarien hazkundea beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute.

Xedapen iragankor horretan birsailkapen bat proposatzen da, eta horren arabera ez dago aldaketarik, ez eskalan, ez kidegoan, ez intendentearen kategoriarentzat, ez komisarioaren eta komisariordearen kategorientzat.

13.- Aldatzen diren buruzagitza-postuak

Aztertzen ari garen aurreproiektuaren 118. artikuluari jarraiki, udaltzaingoak egituratu egiten dira, toki-administrazioek zer eskala eta kategoria bereizi behar dituzten zehaztuz, aldi berean bete behar diren bi baldintzen arabera, batetik udalerriko biztanle kopurua, eta bestetik langile kopurua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoaren antolaketa eta funtzionamenduari aplikatzekoak diren esparru-arauak ezartzen dituen maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretuak indarrean jarraituko du legearekin kontraesanean ez dagoen orotan. eta Dekretu horren zazpigarren artikuluan eskala eta kategoria bakoitzari dagozkion eginkizunak zehazten dira.

Udaltzaingoaren Erregelamendu guztiak Dekretu horren xedapenetara egokitu beharko dira hiru urteko epean. Horrek berekin ekar dezake une honetan buruzagitza-eginkizunak betetzen ari diren funtzionarioak aldatu beharreko buruzagitza-postuak betetzen aritzea.

Behin plantilla egituratu denean biztanle kopuruaren eta plantilla kopuruaren irizpideari jarraiki, parametro horiek, hala nola udalerrian erroldatutako pertsona kopurua, nabarmen aldatzen dira, eskalen araberako egitura 118. artikulua berridazteko proposamenarekin bat ez etortzeraino, eta lege-aurreproiektuaren artikuluetan egoera hori ez da zehaztu.

Datuen bilakaera hori egiaztatu ondoren, postuak berregituratu behar dira, egoera berriarekin bat etorri. Alabaina, gaiaren garrantzia aintzat hartuta, aldaketa horiek gertatu direla ebazteko garrantzizko informazio fidagarri bat hartu beharko da aintzat, gauzak benetan aldatu direla bermatzeko moduan, esaterako, errolda har daiteke kontuan.

Betebehar hori betez egingo diren jardunek honako hau ekarriko dute berekin: buruzagitzaren kategoria murrizten bada, hutsik dauden buruzagitza-lanpostuak

amortizatu egingo dira, hau da, titularrik gabe geratuko dira. Lanpostu horiek titularra badute, funtzionarioek lanpostu horietan jardunez jarraituko dute, eta lanpostua "desagertzeko" daudenen artean sailkatuko da, hau da, hutsik geratzen den unean desagertuko da.

Eskalak sailkatzeko aplikatutako baremoak aldatzearen ondorioz, aldaketak goranzko aldaketa bat badakar berekin, funtzionarioek beren postuan jarraituko dute, izendatu zituztenean zeuzkaten baldintzekin eta betetzen ari diren lanpostuari benetan esleitu zitzaizkion ordainsariak jasoz.

Betetzen ari den lanpostua aldatzeak ez du esan nahi funtzionarioek diru gehiago jasoko dutela betetzen ari diren lanpostuari esleitutako ordainsariak baino, eta beraz, ezin izango dute inolako eskubiderik jaso betetzen ari diren buruzagitzagintza eginkizunak ordaintzeko orain artean esleituta eduki ditzaketen ordainsari osagarrien gainean, ordainsari horiek edonola deitu ere.

Nolanahi ere, aldaketa horrek ez du gastu publikoa handitzea ekarriko, ezta funtzionarioek urtean guztira jasoko dituzten ordainsariak aldatzea ere.

Seigarren Xedapen Iragankorraren 2. atalaren 2. paragrafoa berridazteko proposamenaren arabera, birsailkatutako lanpostuari dagokion kategorian integrazteko aukera dago, honako betekizun hauetako bat betez gero:

- edo postu horretan behin betiko destinoa izatea Poliziaren Legea indarrean hasi baino bost urte lehenagotik.
- edo kategorია horri dagokion titularen jabe izatea.
- edo Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako trebakuntza-ikastaroak egin izana deitu direnean edo egokitzapenaren aurretik deitzen direnean.
- edo Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak emandako egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktikoa gainditzea.

Proposamena nola idatzi den ikusita, integrazioa bidera daiteke honako betekizun hauetako bat betetzen denean:

- Behin betiko destino berbera izatea azken bost urteetan.
 - o Ez zaio eskatzen kategorია horri dagokion titulazio-betekizuna betetzea.
 - o Ez zaio eskatzen Poliziaren Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako trebakuntza-ikastaroa gainditu izana.
 - o Ez zaio eskatzen egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu izana.
- Kategorია horri dagokion titulazioaren jabe izatea.
 - o Ez zaio eskatzen behin betiko destino berbera izatea azken bost urteetan.
 - o Ez zaio eskatzen Poliziaren Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako trebakuntza-ikastaroa gainditu izana.
 - o Ez zaio eskatzen egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu izana.
- Poliziaren Legearen 59.2 artikuluan aurreikusitako trebakuntza-ikastaroa gainditu izana.
 - o Ez zaio eskatzen behin betiko destino berbera izatea azken bost urteetan.
 - o Ez zaio eskatzen kategorία horri dagokion titulazio-betekizuna betetzea.

- Ez zaio eskatzen egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu izana.
- Egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu izana.
 - Ez zaio eskatzen behin betiko destino berbera izatea azken bost urteetan.
 - Ez zaio eskatzen kategoria horri dagokion titulazio-betekizuna betetzea.
 - Egiaztapen profesionaleko ikastaro teoriko-praktiko bat gainditu izana.

Horren haritik, Konstituzio Auzitegiaren 13/2010 epaia transkribatu da:

"Titulaziorik gabe sartzeko asmoak funtzio publikora sartzeko aurreikusitako merezimendu- eta gaitasun-printzipioak ez ezagutzea dakar; horrek kalte egiten dio gaitasunari, lanpostu jakin batean jarduteko eskakizun absolutu gisara, eta merezimendua ukatzen du izendapenera jotzeko alderaketa- eta lehentasun-osagai erlatibo gisara (388/1993 KAE, abenduaren 23koa [RTC 1993,388], F2), estatu osoan aplikagarria den araubide orokorra, zalantzarik gabe oinarritzakoa dena, hausten baitu."

Hori dela eta, ulertu behar dugu aipatu dugun beharrezko malgutasuna – autonomia-erkidegoari aitortu behar zaiona, une jakin batean zegokion eskualdatze-prozesuaren bidez bere gain hartutako funtzio eta zerbitzuak bere antolamendura moldatzeko– ez dela iritsi behar estatuko oinarritzako araudiak izaera orokorrean aurreikusitako baldintza baten eskakizuna aintzat ez hartzerara. Argi dago ezinezkoa dela karrerako funtzionario izatera iristea sarrera hori gertatzen den unean aplikagarria den araudiak eskatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, kasu honetan tituluaren baldintzarekin gertatzen den bezala; izan ere, estatuko oinarritzako araudiak ez ezik, funtzio publikoaren arloko araudi kanariarrak ere ezartzen du eskakizun hori (2/1987 Legearen 23. eta 24. artikulua [LCAN 1987, 943])".

Auzitegi Gorenak, 2006ko irailaren 29ko epaian, adierazten du autonomia-erkidego baten antolamendu-malgutasunak ezin duela alde batera utzi estatuko oinarritzako araudiak oro har aurreikusitako eskakizun bat betetzeko beharra.

Jarraian, EABJren 213/2011 irizpenean emandako iritzia emango dugu aditzera:

"81. paragrafoa. Atal honetan aipatu behar dugu aukera dagoela titulua izan gabe ere eskala horretarako gordetako lanpostuak hornitzeko, lanpostuotan jarduteko gaitzen duen espezializazio-ikastaro bat gaindituz gero. Aukera horrek, ordea, EPOEk diseinatutako sistema, aurrerago aipatu dena, ez ezagutzea esan nahiko luke, eta ez ezagutzea, halaber, eskala bat sortzeko orduan, bete beharreko eginkizunetarako lanbide-prestakuntza jakin bat eskatzea hartzen dela oinarritzat, eta sarbidean eskatutako tituluak gaitzen duela lanpostu horretan jarduteko."

Konstituzio Auzitegiaren epaia eta transkribatutako EABJren txostena ikusirik ondorioztatzen da langileak udaltzaingoetako buruzagitza-postuetan sartzera aintzat hartu beharko dela bai Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia, bai EABJk bere irizpenetan emandako iritzia, eta beraz, behar adinako titulazioaren betekizuna bete beharra dagoela.

14. Udaltzaingoetan bitarteko langileak izendatzeko poltsak sortzea

Bitarteko langileak izendatzeko funtsezko arrazoia urgentzia- eta premia- arrazoiak dira; nolana ere, legez xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionario bat hautatzeko prozedura azkarrak baliatu behar dira, une oro berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioei men eginez (EPOEko 10.2 artikulua).

Horretarako xedatu zuen Administrazio honek, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 31ko 14/2006 Ebazpenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Akordioa argitaratzea.

Akordio horretan jasotzen dira langileak hautatzean aintzat hartu beharreko printzipioak –printzipio horien artean berdintasunaren printzipioa nabarmentzen delarik–, enplegu publikora jotzeko eskakizun orokorren eta lanpostuaren eskakizunen arabera, eta hautagaiak poltsetan integratzeko baliatutako merezimenduaren eta gaitasunaren irizpideen arabera, irizpide horiek baldintzatzen baitute poltsen barruan duten hurrenkera.

Lan-poltsak eratzeko irizpideak Akordioaren 4. artikuluan xedatzen dira, zehazki: EAEko Administrazio Orokorren kidego, eskala eta lan-kategoriarekin bat etorritik eratuko dira lan-poltsak; eta enplegu-publikoko eskaintzak izango dira lehentasunezko tresna lan-poltsak sortzeko. Hala ere, lanbide-gaitasun berezia eskatzen duten lanpostuak betetzeko, edo salbuespenezko egoeretan, langileak hautatzeko deialdi bereziak egitea erabaki dezake Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak.

120. artikuluan ezarri da Toki Administrazioak, lanpostuak urgentziaz eta aldi baterako estali behar dituzenean, udalen arteko lankidetzak-mekanismoak erabiltzeko edo bitartekoak izendatzeko aukera izango duela, funtzio publiko orokorren legerian ezarritakoaren arabera, betiere langile horiek beren zereginak betetzeko oinarritzko prestakuntza badutela bermatzen bada.

Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari proposatutako aurreproiektuan, poliziaren legearen 120. artikuluan, eskumenak ematen zaizkio lan-poltsak osatzeko, bitarteko funtzionarioak udaltzaingoan izendatzeko, hark antolatutako oinarritzko ikastaro bat gainditu dutenekin. Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak zehaztuko ditu ikastaroa egiteko baldintzak"

Martxoaren 30eko 96/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Akademiaren egitura organikoari buruzkoak, 8.1.h) artikuluan ematen dio Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiaren prestakuntzarako eskumena. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren izendapena ere Segurtasun Sailaren egitura organikoari buruzko dekretutik eratorri da:

"8.1.h) Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen, segurtasun pribatuko zerbitzuen, larrialdietako zerbitzuen eta larrialdietako eta babes zibileko boluntario eta herritarren ikasketak-planen eta heziketa eta trebakuntzarako ikastaroak zuzentzea, planifikatzea eta gainbegiratzea."

Jarraian, bitarteko langileak hautatzeko prozedura zehazten da: egiaztatutako kualifikazio berezi bat eskatuko da, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademian soilik egin daitekeen ikastaro bat gaindituz lor daitekeena.

Gai honi buruz aipatzekoa da Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 333/2011 epaia - 942/2009 administrazioarekiko auzi-errekurtsua / Prozedura laburtua. Auzi hartan Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsarako deialdia errekurritu zen, baita HAEEK egindako deialdiaren oinarri orokorrak ere, eta epaiak ez zuen onartu administrazioarekiko errekurtsua, arrazoi hauengatik:

- HAEEK idatzitako deialdia eta oinarri orokorrak bat zetozen Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak ezarritako irizpideekin
- Berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatzen ziren, eta ahal bezain laster bermatzen zen prestazioen kalitatearen gutxieneko estandarren jarraipena

LAUGARRENA.- "Gaiaren funtsean sartuta, hona hemen zer xedatzen duen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 31ko 14/2006 Ebazpenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz 2006ko maiatzaren 30ean Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Akordioa argitaratzea ezartzen duenak, 3. artikuluan: Lan poltsak kudeatzea Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari dagokio". 4.3 artikuluko lehen paragrafoan, berriz: "Halaber, lanbide-gaitasun berezia eskatzen duten lanpostuak betetzeko, langileak hautatzeko deialdi bereziak egitea erabaki dezake Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak", eta 23.3 artikuluan: "HAEEKo zuzendariak, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak ezarritako irizpideen arabera, deialdiaren oinarriak onartuko ditu, aukeraketa-prozesu hori arautuko dutenak (deialdi espezifikokoak); oinarri horietan, aukeraketa-prozesuko probak eta/edo baloratuko diren merezimenduak zehaztuko dira, baita hautaketa-prozesuaren barruan horiek zer garrantzi izango duten ere".

Gauzak horrela, Funtzio Publikoko zuzendariak 2009ko otsailaren 10ean idatzi zuen "Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsa sortzeko beharrianari buruzko txostena" HAEEKo zuzendariarentzat. Txosten horren hitzaurrean berariaz aipatzen da "Administrazio honetan Zuzenean zerbitzuko agenteak hornitzeko sortu den beharrianaren ondorioz, deialdi berezi bat egitea proposatzen da, hedabideetan, Zuzenean zerbitzuko agenteen lan-poltsa sortzeko, eta jakinarazten da..."

Esandako hori guztia aintzat hartuta, ez da onartzen errekurtsuaren lehenengo arrazoia, HAEEK egindako deialdia eta oinarri orokorrak bat baitatuz Eusko Jaurlaritzaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzak ezarritako irizpideekin.

BOSGARRENA.- 2009ko otsailaren 15ean iragarri zen El Correo egunkarian "Zuzenean-Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzurako Agenteen Lan Poltsarako Nahitaezko Prestakuntza Ikastaroen Deialdia". Deialdi horren bidez 10 ikastaro eskaintzen ziren, 150 pertsonentzat, ikastaroa gainditu ondoren Zuzenean zerbitzuko agenteen lanposturako Lan Poltsetan edo Lan Eskaintza Publikoan parte hartu nahi bazuten" (demandako 5. dokumentua).

Horrenbestez, herritar guztiei orokorrean eskainitako deialdia da, tituluaz (goi-mailako batxilergo teknikoa edo baliokidea) eta hizkuntza-eskakizunaz (2. HE edo baliokidea) gainera beste baldintzarik eskatzen ez duena eta, eskainitako lanpostuaren izaera objektiboa edozein eztabaidatik kanpo dago.

Maiatzaren 31ko 14/2006 Ebazpenaren 23.1 artikulua honela dio: "Lan-poltsak handitzeko deialdi publikoak bideratuko dira gaitasun-proba bat edo gehiago eginez, merezimenduak kalifikatuz, edo horiek biak eginez, alde aurretik ezarritako baremo baten arabera. Euskara jakitea beti baloratuko da eta hura egiaztatzeko, hautagaiek dagozkien hizkuntza-eskakizunen ziurtagiriak eman beharko dituzte, edo bestela hizkuntza-eskakizun haiekin homologatutako tituluak".

Arau horrek ez du debekatzen deialdi publikoaren aurretik prestakuntza-ikastaroak egitea. Hori horrela, zilegi da suposatzea EAE osoan hautaketa-prozesua egiteko unean, eskakizun espezifikokoak hain orokorrak izanik, oso eskabide-kopuru handia iritsiko litzatekeela (prima facie aipatutako 150 plazak baino askoz gehiago), eta horrek zailtasunak ekarriko

lituzkeela prozeduran, baita denborazko atzerapena ere; hori dela-eta, herritar guztientzat irekitako prestakuntza-eskaintzaren bitartez berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete ondoren, guztiz zilegi da ondorengo partaidetza-eremu subjektiboa mugatzea, administrazio-eraginkortasunezko irizpideei men eginez. Hain zuzen ere, "eskuragarri dauden langileen gabeziaren aurrean" (F.3 Ext) eta, horren ondorioz, gabezia hori betetzeko premia ikusita, Herritarrentzako Arreta Zerbitzua baita Eusko Jaurlaritzaren eta herritarren arteko harremanaren egituratzailea (F.12 Ext), prestazioaren gutxieneko kalitate-estandarren jarraitasuna ahal bezain laster bermatzea da helburua.

Hautaketa-prozesuaren deialdian, ikastaroetan sartzeko betekizun objektibo eta orokorrak eskatzen ziren, hau da, titulazio ofiziala eta euskararen 2. eskakizuna. Halaber, oraingo eta etorkizuneko premiak balioetsi ondoren ikastaroak kopuru jakin batera mugatu ziren. Epai horretan garrantzia ematen zaio gizarte osora irekitako prestakuntza-eskaintza batek, dagokion deialdi publikoa egin baino lehen, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak betetzeari, eta, horrenbestez, guztiz zilegi da ondorengo partaidetza-eremu subjektiboa mugatzea, administrazio-eraginkortasunezko irizpideei men eginez.

Segurtasun Sailaren proposamenean azter daiteke zilegi eta egoki ote den deialdi espezifiko bat egitea, hedabideen bidez eta herritar guztientzat irekia, ikastaroak egiteko eskakizun objektibo eta orokor batzuk jarrita. Horretarako, ordea, beste alderdi hauek aintzat hartu eta zehaztu beharko lirateke aurretiaz: eskainiko den ikastaroaren plaza kopurua mugatzeko irizpideak; hautaketa-irizpideak, aurkezten direnen artean ikastaroa egin ahalko duten pertsonak erabakitzeke; ikasleen harreman juridikoa; ikastaro horien kostu errealearen analisia; eta ikastaroaren kudeaketa-proiektua.

Ondorioak:

1.-Hautaketa-prozesu baten oinarrietan deitutako plaza kopurua aldatzeko gehieneko ehunekoa Legean arautu beharko litzatekeela uste dugu, eskariak aurkezteko epe berri bat ireki beharrik gabe.

2.- Hautaketa-organoei dagokienez proposatu da 48 artikulua berridaztea honako hauek erantsiz haietan parte hartzeko aukerarik ez duten langile gisa, Enplegu Publikoaren Lege-proiektuarekin bat etorriz: funtzionario-elkarteen edo lanbide-elkargoen ordezkartzan edo sindikatuen kontura diharduten langileak.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten aholkulari adituei dagokienez erantsi beharra dago, gainera, haien jardunak ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bete behar dituela.

3.- Karrera profesional horizontalaren modalitate desberdinen ezarpena eta garapena eraginkorra izateko, beharrezkoa izango da, ezinbestean, euskal administrazio publiko bakoitzak dagokion arau-garapena egitea; eta karrera profesionalaren eraginkortasuna, edonola ere, dagozkion administrazioen aurrekontu-ahalmenaren baitan egongo da. Funtzio publikoaren alorreko indarreko legeetan erregulatutako oinarritzko legeria errespetatu beharko da, baita haren erregelamenduzko garapena ere. Une honetan karrera profesional horizontala garatu gabe dago. Alabaina, euskal enplegu publikoari buruzko legearen aurreproiektua izapidetzen ari da, eta horren arabera Eusko Jaurlaritzari eskumena ematen zaio garapen profesionalari eta jardunaren ebaluazioari buruzko erregelamendu bat egiteko, erregelamendu horretan euskal administrazio publiko guztietan horretarako aplikatu beharreko oinarritzko irizpideak bilduko direlarik,

Euskadiko Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak horri dagokionez ezarritako irizpideei jarraiki.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak homogeneousotasuna ezarri behar du Euskal Administrazio Publikoetan, eta haren Aurreproiektuan zortzigarren xedapen iragankor bat jaso da, atertzen ari garen aurreproiektuan ere jaso behar dena:

“xedapen iragankorra:

Ertzaintzako langileei eta Toki Administrazioaren mendeko udaltzainei ezin izango zaie karrera profesionaleko osagarriaren konturako edo aurreratutako ordainsaririk onartu.

Gainera, honako paragrafo hau erantsi behar da: “Karrera profesionalari dagozkion ordainsari-eskubideak ezin izango dira atzeraeraginez onartu.”

4.- Ikuskapen-eskala eta oinarritzko eskala talde hauetan sailkatzen dira: C taldea eta C1 azpitaldea. Horren ondorioz, sartzeko eskatutako titulazioa C1 azpitalde horri dagokiona da.

5.- Langileak Udaltzaingoetako buruzagitza-postu berrietan sartzeari dagokionez, prozedura egokitu beharra dago, batetik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara, eta, bestetik, EABJK bere irizpenetan emandako iritzira.

6.- Zortzigarren xedapen iragankorra idazterakoan adierazi behar da integrazio hori karrerako funtzionario aguazilei soilik aplikatuko zaiela, eta ez lan-kontratudun aguazilei. Eraginpeko langileak zer baldintzatan geratzen diren zehaztu behar da.

Karrerako aguazil funtzionarioak agente-kidegoan integratzen dira, eta horretarako betekizunak bete beharko dituzte, titulazioa eta ikastaro murriztua gainditzea barne.

Batetik, aguazilak udaltzaingoan integratzen ditu. eta, bestetik, funtzionario aguazilek C2 kategoria dute, eta ez C1 titulazio baliokiderik; beraz, toki-administrazioaren funtzionario-estatutua aplikatzen zaie, eta ezin dezakete armarik eraman.

Armak erabiltzen ikasi beharko du, eta beraz, "lehenik eta behin prestakuntza-ikastaro bat egin beharko du Polizia Akademian" esaten dugunean esan nahi dugu ez dakizkien guztiak ikasi beharko dituela udaltzain baten eginkizunak bete ahal izateko eta udaltzaingoan benetan integratu ahal izateko.

Erantsi beharra dago, gainera, eskala horretan sartzeak ezingo duela ekarri gastu publikoa handitzerik, ezta jasotzen duten urteko ordainsariak aldatzerik ere; beraz, aldaketa horrek dakarren oinarritzko ordainsarien hazkundera beste ordainsari osagarri batzuek xurgatuko dute.

7- Hogeita batgarren xedapen gehigarria erantsi da, udaltzaingoetako funtzionarioen arteko trukearen figura arautzeko. Administrazioak berdintasun-printzipioak errespetatu eta bermatu behar dituzenez, aplikatuko den prozedurak publizitate- eta konkurrentzia-printzipioak bermatu beharko ditu.

III. tituluaren V. kapitulua aldatu da, eta, horren arabera, Osasuna eta Babesa hartuko du hizpide, eta ez, orain arte bezala, zerbitzu-jarduna. Osasun-zerbitzu bat

ezarri du; zerbitzu horren gaitasunak eta antolamendua erregelamendu bidez ezarriko dira, eta lankidetzakontratuak edo -hitzarmenak ezarri ahalko dira mediku profesionalekin edo erakunde sanitario publiko edo pribatuekin. Lankidetzakontratu eta -hitzarmenak administrazio-organo baten eskutik sinatu ahal izango dira bakarrik, eta ez zerbitzu baten eskutik.

9.- Adinarengatik zerbitzu aktiboan jarduteko modulazioa aplikatzeko proposatzen diren neurri zehatzak araututa daude jadanik 194/2012 Dekretuan jasotako lan-baldintzei buruzko Akordioan. Lan-baldintzen eta negoziazio kolektiboaren alorreko neurriak dira. Zerbitzu aktiborako espezifikotasun jakin batzuk jasotzen dira alor horretan, eta eraginpeko administrazio-egoera ez da aldatu, zerbitzu aktiboa izateari eusten diolako.

Adinarengatik zerbitzu aktiboaren modulazioa erregulatzea ezin daiteke administrazio-egoera soiltzat hartu, ezta zerbitzu-aktiboko administrazio egoeratzat ere, **eta beraz, administrazio-egoeren erregimenaren sailkapenaren tipologia berritatzat jotzea ez da bidezkoa gure iritziz:**

- Aztertutako gaia lan-baldintzen eta negoziazio kolektiboaren alorreko gaia da, eta ez lege-mailako arau baten bitartez arautu beharreko gaia.
- Langilearen ahalmen fisiko edo psikikoen murrizketaz aparteko eskubide baten antzera jaso da. Interesdunak eskatuta onartzen da, adina betetzeko betekizun bakararekin.
- Segurtasuna Sailari eskumenak kendu zaizkio urte natural eta kategoria bakoitzeko arrazoiarengatik bigarren jarduerako egoerara igaro daitezkeen gehieneko funtzionario kopurua mugatzeko, unean-unean eskuragarri dauden langileen arabera eta Kidegoaren premia organiko eta funtzionalen arabera.
- Eraginpeko funtzionarioa aldi baterako destinorik gabe egon liteke destinoa esleitu edo lanpostua egokitu arte, eta ez zaio zerbitzuak benetan ematea eskatuko, hau da, zerbitzu aktiboan jarraituko du baina "Administrazioaren esku" (indarreko araudian bakar-bakarrik aurreikusi da "Segurtasun-sailburuordearen esku").
- Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, Administrazioaren beste sektore batzuek (irakasleak, osasun-langileak, segurtasun-langileak eta abar) soilik izango dute Administrazio Orokorreko lanpostuak betetzeko aukera, eta bakar-bakarrik baldin eta Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendek hori aurreikusten badute. Ezinezkoa da aurreikustea Ertzaintzako eta udaltzaingoetako langileek betetzea Administrazio Orokorrean, Autonomia Erkidegoko Administrazioan edo gainerako euskal administrazio publikoetan langileentzat erreserbatutako lanpostuak, polizia-funtzionarioen jardunaz apartekoak.
- Egoera horretan Aurreproiektuak ezar lezake lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko direla, osagarri espezifikoaren osagarri berezia izan ezik, eta horrek esan nahi du zerbitzu aktiboko egoeran dagoelako dagozkionak baino ordainsari txikiagoak jasotzea, baina funtzio publikoaren erregimen orokorrean nahitaezko eszedentzia-egoerari esleitutako ordainsariak baino handiagoak, eta bide batez esango dugu azken egoera horretan ere ez dela lanpostu baten benetako jarduna gertatzen.
- Gaur egun indarrean dauden aurrekontu-egonkortasuneko printzipioen arabera, edozein arau-aldaketarekin batera, aldaketa horretatik erator litezkeen ondorio ekonomikoak buruzko azterketa

aurkeztu behar da, baina espedientean ez da horrelako azterketarik bildu.

10.-Bigarren jarduerako deklarazioari dagokionez, gaur egungo araudiaren arabera, hau da, Poliziaren 471992 Legearen 88. artikulua arabera, bigarren jardueraren jarduna Herrizaingo Sailaren esku edo toki-erakundearen eskumeneko organoaren esku dago, eta haren eginkizunak –ikuskapena, prebentzioa, prestakuntza edo haren kategoriarekin bat datozen bestelako eginkizunak– dagokion kidegoaren barruan bete behar dira. Gainera, lanpostuen zerrendetan ezarritakoaren arabera bigarren jarduerako egoeran dauden langileek bete ditzaketan lanpostuak betetzeko aukera izango dute.

Aztertzen ari garen aurreproiektuan, zehazkiago aurreproiektuaren 86.5 artikuluan, aldi baterako lanpostu batzuk esleituko zaizkio, jardun hori eskatzen duten zerbitzuetan lanean ari den unitatean. Unitate horretan lanpostu hutsik ez badago, beste lantoki batean hutsik geratu den lanpostua esleituko zaio, hain zuzen ere interesdunak proposatutako hiru postuen artean Administrazioak erabakitzen duen postuan, eta hori ezinezkoa bada, interesdunaren kategoriarekin eta titulazioarekin bat datozen zerbitzu osagarriak emateko aukera izango du, dagokion Administrazioaren beste lanpostu batzuetan. Nolanahi ere, azken aurreikuspen hori osatu behar da. Izan ere, ezinbestekoa da bete beharreko lanpostua dagokion lanpostuen zerrendan sailkatu izana Segurtasun Kidego eta Indarretako funtzionarioek betetzeko moduko lanpostu gisa.

Bigarren jarduerako administrazio-egoeraren erregulazioak jasotako zenbait aurreikuspen ez dira bidezkoak gure ustetan, honako arrazoi hauengatik:

- Bigarren jarduerako egoeran deklaraturako funtzionarioak "administrazioaren esku" gerta daitezkeela aurreikustea, "Segurtasun Sailaren esku" geratu beharrean.
- Ertzaintzako eta udaltzaingoetako langileek Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean edo gainerako euskal Administrazio Publikoetan langileentzat gordeta dauden eta polizia-funtzionarioen jardunaz apartekoak diren lanpostuak bete ditzaketela aurreikustea berme-klausula bat erantsi gabe. Horren arabera, esleipen hori egiteko aukera izango da, soil-soilik, dagokion lanpostua, aldeztatik Segurtasun Kidego eta Indarretako funtzionarioek betetzeko moduko postu gisa sailkatu bada.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren.....(a).

Izpta: Carmen Miralles Jorda

Aholkulari juridikoa

O. E.:

Izpta: Juan Maria Barasorda Goicoechea

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA